

2024

# Prestakuntza- Jardueren Programa

IRAILA-ABENDUA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA  
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

# Prestakuntza-Jardueren Programa

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak prestakuntza- proposamen berria aurkezten du 2024ko bigarren lauhilekorako. Haren bidez, denboran zehar eta planifikazioaren aurreko urteko galdetegiaren bidez bidali dizkiguzuen iradokizunak jasotzen saiatu gara, formatuaren eta edukien ingurukoak.

Formatuari dagokionez, gero eta jende gehiagok eskatzen du prestakuntza jarraitu askotarikoa, eta malgua ere, bere egoera pertsonaletara egokitu ahal izateko. Lauhileko honetan, prestakuntza-eskaintzak ikastaro bat, bi tailer, bi *online* mintegi (webinars), bi saio partekatu eta kafe-tertulia bat hartzen ditu.

Prestakuntza-eskaintza honez gain, gogorarazi nahi dizuegu beste proposamen batzuk ere egin ditzakezuela prestakuntza osatzeko, Gizarte Laneko beste elkargo profesional batzuek eta Gizarte Laneko Kontseilu Nagusiak antolatutakoak, zehazki. Proposamen horiek gure sare sozialen eta/edo asteroko buletinaren bidez zabaltzen ditugu.

## 1. IKASTAROAK

Ikastaroek gure lanbidean aritzeko trebetasunak eta gaitasunak hobetzen laguntzen dute.

- **“KASU PRAKTIKOAK, OPOSIZIOENERRAUSKINE (II)”**

BERTA A. MONEO  
ESTANY ETA JAVIER  
DE MIGUEL MARQUÉS  
12 ordu  
ONLINE (zuzenean)  
URRIA 2024

## 2. TAILERRAK

Laburrago eta/edo praktikoago jorratzen dute gaia gure tailerrek, eta jarduerak zertzeladak eman diezazkigukete Gizarte Lanaren alderdi ugarien barneko gai interesgarriei buruz.

- **“KULTURARTEKO BILTARTEKARITZARAKO GAKOAK”**

GURUTZE GORRIA  
5 ordu  
AURREZ AURRE  
AZAROA 2024

- **“JENDAURREAN ARRAKASTAZ HITZ EGITEA”**

MARIAN SALAVERRIA  
6 edo 9 ordu  
PRESENCIAL  
AZAROA 2024

## 3. MINTEGIAK / WEBINARRAK

Beharrezkoa da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inspira ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. *Online* egitea erabaki dugu, Nafarroa osoko elkargokideek parte hartu ahal izan dezaten. Hauek dira lauhileko honetarako mintegiak:

- **“LANA BILATZEA ETA IRTENBIDE PROFESIONALAK GIZARTE LANEAN”**

CRISTINA LOPES  
2 ordu  
ONLINE (zuzenean)  
URRIA 2024

- **“GORPUTZAREN ERAGINA PROZESU MENTAL ETA EMOZIOALETAN ETA BERE INPLEMENTAZIOA GIZARTE LANEAN”**

JUAN CARLOS FERNÁNDEZ.  
2 ordu  
ONLINE (zuzenean)  
URRIA 2024

## 4. ESPAZIO PARTEKATUAK

Gure ustez, beharrezkoa da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inspira ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea.

- **“GIZARTE LANA ADINEKOEKIN”**

GIZARTE LAN GERONTOLOGIKORAKO FOROA  
1,5 ordu  
AURREZ AURRE  
URRIA 2024

- **“GIZARTE LANA ADINGABEEKIN”**

ISABEL SOBERANAS  
1,5 ordu  
AURREZ AURRE  
URRIA 2024

## 5. KAFE TERTULIA

Solasaldirako espazio ireki eta erlaxatua, parte-hartzaileek esperientziak partekatu, gizarte-lanaren arloko gai garrantzitsu eta egungoei buruz eztabaidatu eta komunitate profesionala indartzeko.

- **“BURLATATIK MOYO BARRUTIRA, UGANDAKO BAZTER TXIKI BATERA”**

ROCÍO IBAÑEZ ETA GEMA MAÑU  
1,5 ordu  
AURREZ AURRE  
URRIA 2024

(\*) OHAR ARGIGARRIAK

# IKASTAROAK

## 1

### “Kasu praktikoak, oposizioen Errauskine (II)”

**BERTA A. MONEO ESTANY  
ETA JAVIER DE MIGUEL  
MARQUÉS**

**ONLINE**

**12 ORDU**

**GUTXIENEZ-GEHIENEZ:**

10-20 pertsona.

**DATAK/SAIOAK:**

1. SAIOA: urriak 15, asteartea, 17:00etatik 20:00etara.
2. SAIOA: urriak 19, larunbata, 09:30etik 12:30era.
3. SAIOA: urriak 22, asteartea, 17:00etatik 20:00etara.
4. SAIOA: urriak 26, larunbata, 09:30etik 12:30era.

**IZENA EMATEKO EPEA:**

2024ko urriak 7.

**PREZIOA:**

**80 €** Elkargokide langabetuak, kolegiatu aurrekoak eta Gizarte Laneko ikasleak.

**100 €** Elkargokideak (jardunean).

**ATERA ONURA  
BONOARI**

Gizarte-lanean, kasu praktikoak oposizio baten fasea osatzen duten probetako bat dira, eta, normalean, erabakigarriak dira plaza publiko bat eskuratzeko. Izan ere, askotan, ahalegin handia egiten da oposizioaren zati teorikoa ikasteko eta ez zaio merezi duen garrantzia ematen eskuratutako ezagutza teoriko horien aplikazio praktikoari. Hala ere, plaza bat lortuko bada, bi probak aintzat hartu behar ditugu ikasketa-planteamenduan, eta horretarako trebetasun espezifikoa garatu behar dira, oposizioa ikastea erabakitzen denetik beretik.

Hartara, 12 orduko tailer teoriko-praktiko bat proposatzen da. Tailerrean landuko diren helburuek hau izango dute oinarri: kasu praktikoaren motak eta haien egitura identifikatzea eta haietako bakoitza berariaz ebaztea. Halaber, hainbat deialdi aztertuko dira, tokikoak zein erkidegokoak. Edonola ere, edukia eta



metodologia ikasleen behar eta interesetara egokituko dira.

Landu beharreko edukiek zati teorikoa eta zati guztiz praktikoa bereizten dute; hainbat kasu praktiko ebatzi behar dira azken horretan. Metodologiari dagokionez, hauek erabiliko dira: kasu-metodoa, elkarlaneko ikaskuntza eta azalpenezko ikaskuntza gela irauliarekin konbinatua. Erabili beharreko teknikei dagokienez, ideia-jasa eta eztabaida gidatua izango dira, batez ere.



**+Info  
Izen-ematea**

# TAILERRAK

## 1

### “Kulturarteko bitartekaritzarako gakoak”

GURUTZE GORRIA

**AURREZ AURRE**

5 ORDU

LEKUA: COTSN

**GUTXIENEZ-GEHIENEZ:**

10-20 pertsona bi modalitateetan.

**EGUNAK ETA ORDUAK:**

Orduaren arabera bi tailer mota eskeintzen dira:

**Goizeko tailerra:**

2024ko azaroak 12, asteartea.  
09:30etik 14:30era.

**Arratsaldeko tailerra:**

1. SAIOA: 2024ko azaroak 5, asteartea. 17:00etatik 19:30era.

2. SAIOA: 2024ko azaroak 7, osteguna: 17:00etatik 19:30era.

**IZENA EMATEKO EPEA:**

2024ko urriak 28.

**PREZIOA:**

**DOAKOA.** Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduera.



Prestakuntza honek Magrebeko, Saharaz hegoaldeko Afrikako, Iberoamerikako, ekialdeko herrialdeetako, oro har, eta, bereziki, Bulgaria, Errumania eta Moldaviako kulturen ezaugarri diren gako eta elementuen berri emango da.

Beharrezkoa da haiek ezagutzea kultura-interakzio positiboa eta kulturarteko komunikazio optimoa lortzeko, eta, hala, izan daitezkeen gatazka edo talka kulturalak kudeatzen laguntzeko.

Kultura Aniztasunari buruzko 2001eko Adierazpen

Unibertsalean jasotako kulturaren definiziotik abiatuko gara: gizarte bat edo gizarte-talde bat bereizten duten ezaugarri espiritual eta materialen, intelektualen eta afektiboen multzotzat hartu behar da kultura; gainera, multzo horrek, arte eta letrez gain, bizimoduak, elkarrekin bizitzeko modua, balio-sistemak, tradizioak eta sinesmenak barne hartzen ditu.



**+ info**  
**Izen-ematea**

# TALLERES

## 2

### “Jendurrean arrakastaz hitz egitea”

MARIAN SALAVERRÍA

**AURREZ AURRE**

**6 edo 9 ORDU**

**LEKUA:** Gure egoitza.

**GUTXIENEZ-GEHIENEZ:**

10-20 pertsona bi modalitateetan.

**DATAK/SAIOAK:**

**TAILERRA:**

1. SAIOA: azaroak 18, astelehena, 16:30etik 19:30era.
2. SAIOA: azaroak 21, osteguna, 16:30etik 19:30era.

**SIMULAZIOA:**

Ikastaroaren iraupena luzatzeko aukera dago, azalpenezko simulazioak egiteko.

**SIMULAZIOAREN SAIOA:** azaroak 26, asteartea, 16:30etik 19:30era.

**IZENA EMATEKO EPEA:**

2024ko azaroak 7.



**TAILERRAREN PREZIOA:**

**50 €** Elkargokide langabetuak, kolegiatu aurrekoak eta Gizarte Laneko ikasleak

**63 €** Elkargokideak jardunean.

**TAILERRA+**

**SIMULAZIOAREN PREZIOA**

**76 €** Elkargokide langabetuak, kolegiatu aurrekoak eta Gizarte Laneko ikasleak

**95 €** Elkargokideak jardunean.

Maiz du jendeak jendurrean hitz egiteko beldurra. Antsietate-maila jakin batek lagundu egin dezakeen arren, maila handi batek blokeoa, ondoeza eragin ditzake, bai eta halako egoeretan jardutea eragozteara ere.

Jendurrean azalpenak edo aurkezpenak egitearekin lotutako gaitasunak garatu nahi dituzten Gizarte Laneko profesionalentzat da ikastaro hau.

**ATERA ONURA BONOARI**



**+ info**  
**Izen-ematea**

# Online MINTEGIAK/WEBINARRAK

## 1

### “Lana bilatzea eta irtenbide profesionalak Gizarte Lanean”

CRISTINA LOPES

ONLINE ZUZENEAN

2 ORDU

**GUTXIENEZ:**

10 pertsona.

**DATA:**

2024ko urriak 4.

**ORDUTEGIA:**

17:30etik 19:30era.

**IZENA EMATEKO EPEA:**

2024ko irailak 25.

**PREZIOA:**

5 € elkargokide, kolegiatu aurreko eta Gizarte Laneko ikasleentzat.



**ATERA ONURA  
BONOARI**

Lana bilatzea, berez, lana da. Behar bezala prestatzeko, oinarrizko hauek ezagutu behar dira: xede-erakundeak, espezializazioak, aukerak, tresnak eta lan-helburuetan arrakasta lortzeko modu

egokienak. Prestakuntza honek zeregin horri lotutako funtsezko alderdiak jorratzen.



+ info  
Izen-ematea

# Online MINTEGIAK/WEBINARRAK

## 2

### “Gorputzaren eragina prozesu mental eta emozionaletan eta bere inplementazioa Gizarte Lanean”

**JUAN CARLOS FERNÁNDEZ ORGE**



#### ONLINE DIRECTO

#### 2 ORDU

#### GUTXIENEZ:

10 pertsona.

#### DATA:

2024ko urriak 24.

#### ORDUTEGIA:

17:30etik 19:30era.

#### IZENA EMATEKO EPEA:

2024ko urriak 15.

#### PREZIOA:

**DOAKOA** elkargokide, kolegiatu aurreko eta Gizarte Laneko ikasleentzat.

Premisa honetatik abiatzen gara: ez dugu gorputzik, baizik eta gorputza gara; adimenak eta gorputzak prozesu emozional eta kognitibo guztietan eragiten duen multzo interkomunikatu bat osatzen dute.

Terapia psiko-korporal bioenergetikoa gorputza gure prozesu psikiko eta psiko-somatikoen katalizatzaile gisa erabiltzen duen psikoterapia da. Inkontzientea gorputzean ainguratuta dago, baita gure esperientzia guztiak ere. Gorputza gure bizitzaren eta gure harremanen mapa da.

Azken azterketa neurozientifikoetan argi frogatu da garunaren, bihotzaren eta hesteen

arteko loturak eragina duela gure prozesu kognitiboetan, oroimenean, ikaskuntzan, eta harremanak eta mundua hautemateko moduan. Gure emozionalitateak gure portaeran eragiten du, eta gorputzaren oroimeneak, gure emozionalitatean.

Kontuan izanik gizarte-lana gizabanakoaren, taldearen eta komunitatearen laguntzarako prozesu globala dela, psiko-gorputzasunak tresna batzuk eskaintzen ditu tratamendu eta akonpainamendu emozional eta psikologikoan, pertsonaren ongizate osoa helburu.



+ info

Izen-ematea



# ESPAZIO PARTEKATUAK

## 1

### “Gizarte-lana adinekoekin”

DINAMIZATZAILEAK:  
**GIZARTE LAN  
 GERONTOLOGIKORAKO  
 FOROKO KIDEAK**

**AURREZ AURRE**

**1,5 ORDU**

**LEKUA:** Gure egoitza.

**DATA:**  
 2024ko urriak 10.

**ORDUTEGIA:**  
 17:00etatik 18:30era.

**IZENA EMATEKO EPEA:**  
 2024ko urriak 1.

**PREZIOA:**  
**DOAKOA** elkargokide,  
 kolegiatu aurreko eta  
 Gizarte Laneko ikasleentzat..



Gure ustez, garrantzitsua da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inspira ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Sei hileko honetan, Gizarte Lanak hainbat testuinguru profesionaletan duen papera hartuko dugu ardatz. Espazio hauen bitartez, Gizarte Lanaren aniztasuna eta alderdi anitzak erakutsi nahi ditugu.

Oraingo honetan, Gizarte Lana adineko pertsonekin landuko dugu. Hainbat zerbitzutan arlo horretan eskarmentua duten gizarte-langile kolegiatu batzuek aurkeztuko dute.



**Izen-ematea**

# ESPazio PARTEKATUAK

## 2

### “Gizarte-lana adingabeekin”

DINAMIZATZAILEA:  
**MARIBEL SOBERANAS**

**AURREZ AURRE**

**1,5 ORDU**

**LEKUA:** Gure egoitza.

**DATA:**

2024ko urriak 29.

**ORDUTEGIA:**

17:00etatik 18:30era.

**IZENA EMATEKO EPEA:**

2024ko urriak 22.

**PREZIOA:**

**DOAKOA** elkargokide, kolegiatu aurreko eta Gizarte Laneko ikasleentzat.



Gure ustez, garrantzitsua da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inspira ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Sei hileko honetan, Gizarte Lanak hainbat testuinguru profesionaletan duen papera hartuko dugu ardatz. Espazio hauen bitartez, Gizarte Lanaren aniztasuna eta alderdi anitzak erakutsi nahi ditugu.

Oraingo honetan, adingabeekin egiten den Gizarte Lanari helduko diogu, hainbat zerbitzutan adingabeekin lan egiten eskarmentua duten gizarte-langile kolegiatu batzuek aurkeztuta.



**Izen-ematea**

# KAFE-TERTULIA

## 1

“Burlatetik Moyo barrutira, Ugandako bazter txiki batera”

ROCÍO IBAÑEZ ETA GEMA MAÑU

**AURREZ AURRE**

**1,5 ORDU**

**GUTXIENEZ:**

10 pertsona.

**LEKUA:** Gure egoitza.

**DATA:**

2024ko urriak 21.

**ORDUTEGIA:**

17:00etatik 18:30era.

**IZENA EMATEKO EPEA:**

2024ko urriak 17.

**PREZIOA:**

**DOAKOA** elkargokide, kolegiatu aurreko eta Gizarte Laneko ikasleentzat.



Proiektzio honekin, Gema Mañu Echaidek (Gizarte-langilea. Burlatako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako koordinatzailea), Rocío Ibañez Espinal (Gizarte-langilea. Ayllu zerbitzuko zuzendaria, Kulturarteko bizikidetza eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka, Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusia) eta Burlatako "Solidarios con Arua-Arua Elkartasuna"

GKEak egindako bidaiaren esperientzia partekatu nahi dugu.

Burlatako GKE horrek haurrekin, familiekin eta desgaitasuna duten neska-mutielekin egiten dituen proiektuak ezagutaraztea.



**+ info**  
**Izen-ematea**

(\*)

## OHAR ARGIGARRIAK

PRESTAKUNTZAREN IZEN-EMATEEI, ORDAINKETARI ETA ITZULKETEI BURUZKO OHAR ARGIGARRIAK:

- **Izena ematea:** erabili eskainitako proposamen bakoitzerako emandako formularioak.
- Izena eman duten pertsonen kopurua dagoen plaza-kopurua baino handiagoa bada, **plazak esleitzeko irizpide hauek** kontuan hartuko dira:
  1. COTSN/NGLEOko kideak.
  2. Gizarte Laneko beste elkargo profesional batzuetan kolegiatutakoak.
  3. Gizarte Laneko ikasleak.
  4. Kolegiatu gabekoak.
 Eta irizpide hori kontuan hartuta, izena emateko ordena lehenetsiko da.
- Norbait erregistratu, baina azkenean ezin badu izena eman duen prestakuntzara joan, **hasi baino lehen betiere**, ahalik eta azkarren jakinarazi behar du, prestakuntza-ikastaroa edo -jarduera zenbat jendek egingo duen zehatz-mehatz jakiteko, eta beste pertsonen eskaerei baietz ala ezetz esan ahal izateko.
- Prestakuntza kobratu ondoren norbaitek **baja ematen badu hasi aurretik**, ORDAINDUTAKOAREN % 75 ITZULIKO ZAIO.
- Prestakuntza kobratu ondoren norbaitek **baja ematen badu hasi ondoren**, EZ ZAIO EZER ITZULIKO.

## GOGORATU!!!

Elkargoak **10 €-ko deskontu-bonua** eskaini die Nafarroan kolegiatutako guztiei, Nafarroako Gizarte Langintzako Elkargoko 2024. urteko edozein prestakuntzatan erabiltzeko.





COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA  
NAFARROAKO GIZATE LAN GINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
NAVARRA · NAFARROA

---

[www.trabajosocialnavarra.org](http://www.trabajosocialnavarra.org)

Calle Irunlarrea, 54 – bajo • 31008 Pamplona • Iruñea Navarra / Tlf.: 948 240 401